



XEREZADE
MILA GAU ETA BAT GEHIAGO

Seve Callejaren argitalpena
Antton Olanoren itzulpena

Desclée De Brouwer

Sarrera

Errusiako rapsodek estepako edo taigako herrietan beren heroien eta tsarren kondairak eta ipuinak kontatzen zituzten bezala, edo Txinako ipuin kontalariak txanpon gutxi batzuen truke antzinako elezaharrak gogorarazten, edota ipar herrietako ipuinlariak beren sagak azaltzen, sortaldeko herrietako kontalariak ere –hinduak, pertsiarrak, egiptoarrak zein siriarrak– herriz herri, haimaz haima eta jauregiz jauregi ibiltzen ziren beren sultan, kalifa eta bisirren balentriak eta maite kontuak kontatzen. Sortaldetik sartaldera, eta iparraldetik hegoaldera, ezin konta ahalako ipuinen txirikorda luzea osatu zen horrela. Istorio horietako asko eskuizkribuetan finkatuak gelditu ziren, edo merkatarien gogoan iltzatuak, edota esploratzaileek beren ibileretan bildutako altxorretan gordeak. Gero, guregana iristean, mendebaldeko erara moldatu ziren berehala, ikerlari eta folkloristen liburuetan argitaratuak. Ez da harritzekoa, beraz, an-



tzekotasun handiak aurkitzea hango eta hemengo ipuinen artean.

Sortaldeko ipuin bildumarik handiena *Mila gau eta bat gehiago* izenekoa da. Ipuin asko eta askotarikoek osatzen dute bilduma, kontalari irudimentsu batek jakinduria handiz batzuk bestee-kin korapilatuak. Xerezade izeneko emakume gazte bat da kontalaria, Bagdadeko sultanaren bisirraren alaba bera. Sultanak, asperturik, neska gazte bat deitzen du bere gelara gauero, poz pixka bat eman eta bizitza alai diezaion. Baina goizean, aurreko gauean bezain asperturik jaikitzen denez, hil egiten du. Eta horrela, gauero-gauero. Bere txanda heltzean, Xerezade ipuin bat kontatzen hasiko da, baina egunsentia heltzean kontaktari utziko dio, ipuina bukatu gabe utzita. Hurrengo gauean, ipuina bukatu eta beste bat hasiko du, aurrekoarekin lotuta. Eta horrela, gauero-gauero. Sultana ipuinak entzuteko irrikaz dagoen bitartean, Xerezadek bizirik jarraituko du. Gauero ipuin bat bukatu eta beste bat hasi, gauero-gauero, mila gau eta bat gehiagotan, harik eta, azkenik, sultanak, asperdura betiko uxaturik, Xerezaderekin ezkontzea erabakitzen duen arte.



Ipuinlariaren trebetasunari eta entzulearen jakin-minari esker, *Mila gau eta bat gehiago* hone-tako ipuin bakoitza historia amaigabe baten zati bat da, azpikeriaz, umorez, maltzurkeriaz, maitasunez, misterioz, magiaz... betea. Horra nola mila gau eta beste hainbeste ipuin horiek mila urte luzetan bizi ahal izan diren mundu guztiko ipuin entzule eta irakurleren gogoan gordeak.

Mila gau eta bat gehiago-ko ipuinak ipuinen ipuin bat dira. Hasiera eta bukaerako istorioaren atzean, gauero eten eta berritzen diren askotariko kontakizunak pilatzen dira, elezaharrak, alegiak, maitagarri ipuinak, ohitura anekdotak, poemak... kontakizun sorta zabal-zabal bat osatuz. Obrak, bere osoan, liburudenda bateko erakusleihoa ematen du, liburuz betea, irakurleak, zer liburu irakurri nahi duen, hura hartzeko.

Astoa, idia eta merkataria izeneko ipuina, adibidez, alegia bat da, bisirrak alaba Xerezaderi kontatua, Indiako *Calila eta Dimna* izeneko liburuan oinarritua. *Merkataria eta jenioa*, berriz, maitagarri ipuin bat da.

Mila gau eta bat gehiago bildumako milaka orrietan barrena era guztietako pertsonaiak topatuko ditu irakurleak –altxor bilatzaileak, zaldun



bihoztunak, bidaiari ausartak, gaizto maltzurak, esklaboak, mustroak...– eta era guztietako istorioak –tristeak eta alaiak, isekariak eta irrigileak, sentimentalak eta trajikoak, moralak eta pipertsuak–. Guk, orain, bilduma osoaren lagin txiki-txiki bat eskaintzen dizuegu hemen.

Seve Calleja

1

Astoa, idia eta nekazaria

Behin, bazen nekazari aberats bat, etxalde askoren eta azienda handien jabea. Egun batez, etxalde horietako batera erretiratu zen, emazte eta seme-alabekin batera, bere jabegoaz arduratzera. Nekazariak dohain berezi bat zuen abereen mintzaira ulertzeko, baina debekatua zuen, heriotzaren azpian, entzundakoa inori azaltzea.

Goiz batean, larrainean eserita zegoela, asto eta idi bat igaro ziren bere aurretik.

–Hi bizi haiz, hi! –esan zion idiak astoari–. Egoanean egonez, kolperik jo gabe egun osoan! Sultana bera baino hobeto bizi haiz. Etxeko morroiak kontu handiz zaintzen eta garbitzen hau, eta egunero ale hutsa ematen dik jateko, eta ur garbi freskoa edateko. Hik zeregin bakarra duk egun osoan: gure nagusi jauna paseatzera eramatea, hari go-goak ematen dionean. Gainerakoan, alferkeriari emanda biziko hintzen. Hori duk bizitzea, hori! Ni ez naitek, ez, hain ongi tratatzen, ezta gutxiagorik



ere! Handia duk nire zoritxarra, hire zoriona bezainbat. Egunak ez dik oraindik argitu, eta uzta-
rrian lotzen naitek, lurra goldeaz iraultzera. Lana-
ren lanez, leher eginda nagok, eta akuiluaren zizta-
koz, haragi bizian diat garondoa. Eta argitik ilune-
raino goldaketan aritu ondoren, etxeratzen naize-
nean, morroiak zer emango jateko, eta baba beltz
ziztrin batzuk, zikin-zikinak lurrez. Nire babei
lurra kentzen hasi etxeko morroia, bai zera! Eta
hori dena gutxi balitz, gaua neure gorotzetan
etzanda igaro behar izaten diat, etzaleku hoberik
ezean. Neronen gorotza, hori diat azpiak egiteko
gai bakarra. Nola ez naiz ba hire zorionaren
bekaitz izango?

Astoak belarriak erne-erne entzun zituen idiaren
hitzak, eta hari esan ahal guztiak esaten utzi ondo-
ren, hauxe erantzun zion:

–Ez nauk batere harritzen gainerako abere jen-
deak hi ergeltzat edukitzea, adiskide! Hi haiz ino-
zoa, hi, inozorik baldin bada! Bestek agindutako
guztia egiten duk, txintik ere esan gabe. Zer ikasi
duk eramankizun garratz horietatik? Herorrek
aitortu duk leher gaizto egin arte aritzen haizela
lanean nagusi esker txarreko baten atsedean, atse-
gin eta onuraren mesedetan. Adoretsu bahintz in-



dartsu bezain, ez hinduke, ez, hain gaizki tratatuko! Ganbelara lotzera haramanean, zergatik ez diok aurre egiten? Zergatik ez diok adarka egiten? Hire sumina adierazteko, zergatik ez duk apatxaz lurra aztarrikatzen? Zergatik ez duk hire marruma beldurgarriaz izua zabaltzen? Hik arma onak dituk, naturak berak emanak, heure burua errespetarazteko, baina ez dituk baliatzen. Morroiak baba eta lasto txarra ematen diala..., ba ez itzak jan, usain egin eta utzi bertan. Nire esan onak zintzo betetzen badituk, egun gutxi barru goitik behe-
ra aldatuko duk hire bizitza. Ikusiko duk!

Idiak astoaren esanak aintzat hartu eta eskerrak eman zizkion.

–Adiskide, eskerrik asko hain aholku onak emategatik. Zintzo-zintzo beteko ditiat hire esanak, eta bihartik aurrera ez nauk hain otzanki portatuko!

Eta hori esanda, astoa eta idia isilik gelditu ziren, zein bere gogoetetan murgilduta.

Nekazariak hitzik ere galdu gabe entzun zuen astoaren eta idiaren arteko elkarrizketa osoa. Biharamunean, goizean goiz, etxeko morroiak idia hartu, uztarrarian lotu, eta, egunero bezala, lurra lantzera eraman zuen. Idiak, astoaren aholkuak



gogoan, ezer gertatu ez balitz bezala jokatu zuen egunean zehar, baina iluntzean, morroiak ganbela lotu nahi izan zuenean, otzantasunez burua markurtu ordez, atzera egin zuen marrumaka, eta burukadak ematen eta adarkadak jaurtitzen hasi zen, gizona zauritzeko asmoz, astoak erakutsitako imintzo eta keinu guztiak ginez.

Hurrengo goizean ere, morroiak, idia lanerako lotzera azaldu zenean, babaz eta lastoz betea aurkitu zuen ganbela, eta idia lurrean luze etzanda, arnasestuka. Usterik gaixorik zegoela, eta lan egitera eramatea alferrik izango zela, morroiak nagusiarengana jo zuen berehala, gertatutakoaren berri ematera.

Astoaren aholkuek beren bidea egina zutela jakin zuen horrela merkatariak, eta astoari merezi zuen zigorra emateko asmoz, esan zion morroiari.

–Hoa eta eraman ezak astoa idiaren ordez, eta lan eragiok egun osoan, leher gaizto egin arte.

Merkatariaren esana betez, egun hartan, idiaren ordez astoak tiratu zuen goldetik. Asko nekatu zuen lanak, baina askoz gehiago lanerako ohiturarik ezak. Gainera, goldean ari zela makilazoka josi zuten bezala denbora guztian, belaunek ozta-ozta eusten ziotela itzuli zen etxera.



Bien bitartean, nahi adina jan eta lo egin ondoren, idia pozez zoratzen zegoen, bai adiskidearekin, emandako aholku onagatik, bai bere buruarekin, aholkuari jaramon egiteko adorea izateagatik. Behin eta berriz gorai patu zuen lagunaren izena, eta halaxe aitortu zion, etxeratzen ikusi zuenean. Astoak, baina, hartutako tratu txarragatik nahigabeturik, ez zion hitz erdi bat ere esan.

–Ergela ez bestea! –esan zion astoak bere buruari–. Esne mamitan bizi hintzen, eta begira nola hagoen orain! Heu haiz egoera honen erantzule bakarra, eta zulo beltz honetatik ateratzeko ezer asmatzen ez baduk, galdua haiz betiko.

Hori esanda, nekearen nekez, hankek huts egin eta bertan erori zen, ganbela ondoan, erdi hilik.

Orduan, esan zion bisirrak Xerezaderi:

–Alaba maitea, ez egin astoak bezala, eta ez hadi hi ere ergela izan.

–Aita –esan zuen Xerezadek–, ipuin horrek ez nau iritziz aldatuko. Eta ez zaitut bakean utziko sultanaren aurrera eramaten nauzun arte, eta berearekin ezkontarazten nauzun arte.

Bisirrak, alabaren egoskorkeria ikusirik, esan zuen: